

Ez adiorik tobaritx Gorbatsxov


Soviet Batasuneko azken lehendakariak atzo aurkeztu zuen dimisioa

Mikhail Gorbatsxov atzora arte Soviet Batasuneko lehendakari zenak bere azken diskurtsoa egin zuen atzo arratsaldeko zazpitan, (seietan Euskal Herriko ordutegian) telebista kameran aurrean eta soviatar eta mundu guztiarentzat. Hamaika minutu eskaseko hitzaldian Gorbatsxovek adierazi zuen dimititu egiten duela, badoala, «ezin dudalako nire herria zatitzerik onartu».

MOSKU

Baina Gorbatsxovek ez zuen inolako amorrurik gorde, eta hala adierazi zuen telebistaz. Mezu berean, lehendakari ohiak adierazi zuen eginahal guztiak egingo dituela Estatu Independentteen Komunitateak (EIK) bakea ekar diezaioten SESB zenari. Perestroikaren egileak onartu zuen porrot egin zuela Batasunaren mantentze saialdian eta herriari zorte ona opatu zion.

Gorbatsxovek esan zuen gertaerek beste bide bat hartu zutela eta Batasunaren desegituraketarako norabidea hartu zutela, «inolaz ere konforme egon ezin dudana bidea hartu zuten hain zuzen, gure herriarentzat eta nazioarteko komunitatearentzat mehatxu handiegiak ikusten ditudalako». Gorbatsxovek «horren erabaki garantzitsuak herriaren borondateetik hasita hartu behar direla» nabarmendu zuen, bere kargua «zeharo arduratuta baina aldi berean ezperantzaz beteta» uzten duela adierazterakoan.



«Nire lehendakari funtzio guztietatik dimititu egiten dut eta dagoen on guztia opa dizuet».

ARDURATUTA BAINA ESPERANTZAREKIN

«Sistema zaharraren amaiera berriaren hasiera gertatu baino lehenago eman zen. Honek egoera larriagotu egin zuen. Badakit, eta ziur asko jakin ere, oso garai gogorak datorz-kigula. Kritikak agintari guztientzat doaz maila guztietan. Baina nik azpimarratu nahi nuke behin eta berriro, aldaketa erradikalak horren herri handian ezin direla garatu min handirik eta zailtasunik gabe. Abuztuko Estatu kolpeak muturreko mailalara iritsi zen krisi gogor bat sortu zuen.

Estatuaren desgiteraino iritsi zen, eta Alma Ata-ko gailurraren ondoren ni ez nago batere trankil. Eta ez nago trankil, gure herriaren guztiengatik, azken urteetan lorturiko printzipio demokratikoak mantendu egin behar direlako, gure historiak hainbeste izerdi bota ondoren lorturiko emaitzak direlako eta ezin dugulako bat bera ere galtzen utzi. Bestela, etorkizun oparo eta hobeago baten esperantza guztiak ehortziko ditugu. Apaltasun eta egi osoarekin hitzegtzen dut honetaz. Nire betebeharrak morala da. Eskerrak eman nahi dizkiet

gure herriaren birmoldaketarako politikan lagundu duten herri guztiari eta erreforma politikoetan lan egin duten guztieri».

«Zibilizazio handi bateko oinordekoak gara eta etorkizuna bakoitzaren esku geratzen da. Nire ondoan urte hauetan kausa ona eta justua defendatu duzun guztioi esan nahi dizuet, gu denon esfortzuak balio izango duela gure gizartea justu eta demokratikoa izan dadin. Nire lehendakari funtzio guztietatik dimititu egiten dut eta dagoen on guztia opa dizuet».

Hauek izan ziren Mikhail Gorbatsxovek lehendakari bezala esan zituen azken hitzak. Hemendik aurrera zer egingo duen ikusteke dago. Berak duela gutxi adierazi zuenez, politikan segituko du.

Azken hitzak

Mikhail Gorbatsxovek atzo egin zuen bere azken diskurtsoa lehendakari gisa. Nazioari zuzenduz, soviatar eta mundu guztiarentzat hitzegin zuen.

«Gertaerek beste bide bat hartu zuten, Batasunaren desegituraketarako norabidearekin inolaz ere konforme egon ezin dudana bidea hartu zuten hain zuzen, gure herriarentzat eta nazioarteko komunitatearentzat mehatxu handiegiak ikusten ditudalako».

«Sistema zaharraren amaiera berriaren hasiera gertatu baino lehenago eman zen. Honek egoera larriagotu egin zuen. Badakit, eta ziur asko jakin ere, oso garai gogorak datorz-kigula. Kritikak agintari guztientzat doaz maila guztietan. Baina nik azpimarratu nahi nuke behin eta berriro, aldaketa erradikalak horren herri handian ezin direla garatu min handirik eta zailtasunik gabe».

«Alma Ata-ko gailurraren ondoren ni ez nago batere lasai. Eta ez nago lasai, gure herriaren guztiengatik, azken urteetan lorturiko printzipio demokratikoak mantendu egin behar direlako, gure historiak hainbeste izerdi bota ondoren lorturiko emaitzak direlako eta ezin dugulako bat bera ere galtzen utzi».

«Zibilizazio handi bateko oinordekoak gara eta etorkizuna bakoitzaren esku geratzen da. Nire ondoan urte hauetan kausa ona eta justua defendatu duzun guztioi esan nahi dizuet, gu denon esfortzuak balio izango duela gure gizartea justu eta demokratikoa izan dadin. «Nire lehendakari funtzio guztietatik dimititu egiten dut eta dagoen on guztia opa dizuet».

Errusiako Federazioak SESBen lekua bete du NBEko Segurtasun Kontseiluan

MOSKU

Soviet Batasuna dagoeneko ez dago Nazio Batuen Erakundean. Herenegun arratsaldean Errusiako Federazioak ordezkatu zuen NBEko batzorde guztietan, baita Segurtasun Kontseiluan ere.

Beste inolako protokolorik gabe, nahikoa izan zen Boris Ieltsinek Javier Perez de Cuellarri bidalitako gutuna. «Mesedez, hemendik aurrera erabil ezazu NBEko Errusiako Federazioa lehen SESB agertzen zen guztietan». Gutun horretan Ieltsinek garbi uzten dio Cuellarri Estatu Independentteen Komunitatearen (EIK) babesa daukala Errusiako Federazioak eta honek SESBek zeuzkan eskubide eta betebeharrak guztien ardura hartzen duela.

EEBB, Txina, Frantzia eta Britainia Handiarekin batera osatzen zuen SESB Nazio Batuetako Segurtasun Kontseilua. Une hauetan berari zegokion lehendakariitza.

Bandera gorriaren ordez Errusiako hiru koloreduna jarri zuten atzo



Bandera gorria kremlinen.

bertan Nazio Batuen egoitzan. Baita Geneven ere. Horrekin batera, atzo bertan aldatu zituzten SESBek munduan zituen enbaxada guztietako banderak. Errusiakoa daukate orain guztiak.

Atzo bertan erabaki zuen Errusiako Legebiltzarrak Errusiako Federazio edota Errusia izenak erabiltzea eta ez dela inon agertuko 'sozialista' kalifikatiboa. Batzar horretan bertan iragarri zuen Ieltsinek Errusiak bere Defentsa Ministeritza izango duela eta berretsi egin zen arma nuklear estrategikoak aginte bateratuaren pean egoteko hartua zegoen erabakia.

MUNDUAN ERRUSIA FINKATZEN

Ieltsinek Nazio Batuetan Errusia agertzea eskatzen zuen une berean horren alde agertu zen Alemaniako gobernuak. Horren alde dagoela esan zuen atzo Hans Dietrich Genscher Kanpo Arazoetarako ministroak.

Dietrich Genscherek esan zuen Europako Komunitateko herri guztiek aldatu beharko luketela Errusiarengana lehen Soviet Batasunarekin zeukaten harremana. Gorbatsxovek dimititu eta berehala gertatzea nahiko lukeela adierazi zuen Genscherek.



GEORGIAko egoerak bere hartan segitzen du.

Oposizioak Tibilisikoko kaleak hartuta dauka eta Zviad Gamsakhurdia lehendakariak Lehendakariitza egoitzako sotoetan jarraitzen du babesturik. Gamsakhurdia Estatu Independentteen Komunitatean sartzeko eskaera egin zuen herenegun, baina Boris Ieltsinek ezezko borobila eman dio Georgian giza eskubideak ez direla errespetatzen argudiatuz. Horrez gain, bertoko Armada Gorria Moskura itzultzeko agindua eman du.